

Hasi da Everesteko oinarrizko kanpalekura iristeko erronka

Javier Lopez Pagazaurtundua zallatarra Katmandura iritsi da eta ordu gutxi barru hasiko da erronka garrantzitsu honi aurre egiten Alex Txikon alpinistaren eskutik

Zallan, 2022ko abenduaren 10ean. Javier López Pagazaurtundua Nepalen dago jada. Loipun hasitako bidaia luzearen ondoren, zallatarra Alex Txikonekin elkartu zen atzo Katmandun, eta erronka zaila izango dena prestatzen ari dira, Everesteko oinarrizko kanpalekura iristea (5.364 metro itsas mailatik). Egun luzeak izango dira, kilometro askorekin, baina biak oinez hasteko ilusioz beteta daude.

“Urduri nago, baina erronkari ekiteko gogoz”, aitortu zuen garuneko paralisia duen Javierrek bidaian irteteen. Txikonek, bestalde, bera ere “ilusioz gainezka” dagoela gaineratu zuen. “Izugarria da Javik duen borondatearen indarra ikustea. Gu guztiak motibatzen gaitu. Bera hemen egotea asko da. Ziur nago irekiko duen bidea motibazioa izango dela jende askorentzat. Jarraitu beharreko eredia da, zalantza barik”.

Urbegi Fundazioak ekainaren 13an lehen aldiz egin zuen ‘Ezinezkoa’ sarien banaketa ekitaldian ezagutu zuten elkar bi protagonistek. Ekimen horren helburua, gainditzeko eta enplegarritasuna hobetzeko espirituaren bitartez laneratzea lortu duten eta, gainera, antzeko egoeran dauden beste pertsona batzuen erreferente eta eredu bihurtu diren zaugarritasun-egoeran dauden kolektiboetako pertsonen bizi-ibilbideak aintzatestea, gizartean zabaltzea eta balioestea da. Urbegi Fundazioak Javik eta Txikonek egingo duten erronka hau errealitate bihurtu du.

Sariak izan ziren bien arteko lotura, eta berehala sortu zen adiskidetasuna. Eta, askotan gertatzen den bezala, Everesteko oinarrizko kanpalekura iristeko asmoa bi aldiz pentsatu barik sortu zen. Txikonek proposatu eta Javierrek onartu egin zuen. Ez bata ez bestea ez ziren kikildu. Bidaia planifikatzen hasi ziren eta azaroaren 21ean euren erronka aurkeztu zuten Zallako Kultur Etxean bildu ziren 50 bat lagunen begiradaren aurrean. Javierrek aurrez aurre kontatu gura zien erronka bere bizilagunei.

Biak Nepalgo hiriburuan daude une honetan, eta laster, munduko mendirik garaienaren magalera eramango dituen 10 eguneko trekkinga egiten hasiko dira. Ilusioa eta gogoa ez zaizkie falta.